



Topa Eszenika Manuel Lekuonan.- Kukuka antzerki eta dantza eskolarekin elkarlanean, Usurbilen Antzerki Ekintza taldeak antolatutako 5. Topa Eszenika kultur-etxera iritsi zen larunbat iluntzean. "Poza" antzezlana eskaini zuen Metro koadroka kolektiboak hainbat herritarren aurrean. Jabi Barandiaran, Idoia Bera-
tarbide, Ander Fernandez, Oier Guillan eta Asier Sarasola izan ziren "Poza" antzezlano kideak. Bost lagun eskenatokitatu ziren eta denak gela batean egongo balira bezala oholtzaratu ziren, zerbait gertatzeko zain egongo balira bezala. Izenburuak dioen gisan poztasuna izan zuen aztergai antzerkiak eta zerbait unetan ikusleek barre algarak egin zituzten. Dena den, obra honen berezko ezaugarria inprobisazioa izan zen. Izan ere, gainontzeko antzerki obretan gertatu ohi denaren kontrari, kasu honetan aktoreek ez zuten paper edo rol zehatzik jorratu. Horrela, ikuslea bera bihurtu nahi izan zuten antzerkiaren protagonista, istorioa berak ere osatu zezan aktoreek lan guztia eginga eman gabe. Poesiatik asko izan zuen larunbat arratsaldeko obrak, edertasunetik ere bai. Antzerkiak koloretik eduki zuen neurri berean izan zuen iluntasunetik ere. Askotan gertatzen den bezala, guztiak galdua dirudien arren argi izpitxo bat beti pizten dugula gogorarazi ziguten bost aktoreek.

4 OMENALDIA

Adineko herritarrek omenaldia jaso dute asteburuan

Herriko adinekoak ez dira geldirik egon asteburuan. Omenaldi asteari zukua eduki atera diote. Larunbat eta igandean ere izan dute non gozatu. Ibilaldi neurtua, urteroko meza nagusia, kultur-etxeko ekitaldiak eta bazkari herrikoia izan dira asteburuko momentu gorenak.

5 OROIMENA

Erbesteratutako haurren memoria lantzeko ekimena

Gerra Zibilaren garaian Lasarte-Oriatik alde egin behar izan zuten haur erbesteratuak gogoratuko dituzten ekimenak antolatu dituzte Udalak eta Islada Ezkutatuak oroimen historikoaren aldeko taldeak. Argazki erakusketa eta Angel Belzaren memoria liburuaren aurkezpena esaterako.



6 KIROLA

Ostadar SKTko jubenilak fin eta kadeteek estropezu

Saskibaloia eguna izan zen larunbata. Ostadar SKTko neska kadeteek Internazionalen aurka amore eman behar izan zuten, 45-55. Jubenilek berri, errepaso ederra eman zioten Bergarari, 53 eta 21 irabazita. Denboraldiko lehen bi partidak izan ziren. Goizean ondorioak ateratzeko.

BERRIA CARNICERÍA **ARANZABAL** HARATEGIA

Jaizkibel plaza 11
20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 365156

Artisau
urdaiazpiko egosia
59 zent./100gr

Behi txuleta
9,90 €/kiloa

Txekor hanburgesa
7,50 €/kiloa.
Kilo batekin,
oilasko bat opari

Navidul urdaiazpikoa
0,99 zent./100gr

Adituak dio



Oihana Salazar
Psikologoa

Hego haizeak bazterrak nahastuz eta astinduz eman dio hasiera udazkenari. Egun epelekin agurtu dugu uda eta iraila. Uda giroko azken printzei eutsi nahirik, jendea, kalean dabil neguko errutinari muzin egin nahian. Ni neu ere bai, eta Zinemaldia, horretarako aitzakia paregabea izan da. Pare bat pelikula eta dokumental ikusi ditut eta horietako batek sortutako gogoetekin natorkizue.

“Metodo Arrieta” du izena dokumentalak, bi ahizpa elbarriren bizitza, ibilbide, garapen eta borrokari buruzkoa da. Euren artean komunikatu ahal izateko eta gizartearen integrazioa sortu duten metodoaren berri emateaz gain, dokumentalaren xedea, egunerokotasunean, eman dituzten eta ematen ari diren pausak erakustea da. Integrazioa dute biek helburu; eta horretarako, komunikatzea ezinbestekotzat jotzen dutenez, elkar ulertzeko hitzezkoa ez den komunikazio tresna bat sortu dute.

Jaio eta hil norberak bere bakardadean egiten duen prozesua izan arren, bizitza komunitatean ematen dugu. Jaiotzen garen une beretik, babes, onarpen eta maitasun beharra dugu, eta hori ase nahian jotzen dugu sarritan talde-ara. Gure beharrak aseko dizkigun berdin kolektibora. Banakoak taldean txertatzeko nahia betidanik izan du, berezkoa dugu. Integrazio bide hori, ordea, ez da beti erraza izaten, eta zenbait kasutan bestee-tan baina zailagoa edo nekezagoa izaten da, askotan, berdinak izatera iritsi behar horrek itsutu egiten baikaitu. Hortxe dago gakoa, argi izan behar dugu integrazioak ez gaituela berdintasunera eramanez, aniztasunera baizik.

“Anitzen sarea” ere abian da Lasarte-Oriako kultur aniztasuna lantzeko!

Kulturartekotasuna, ametsa ote?

Lehenengo astean Lasarte-Oriako Udalak Anitzen Sarea proiektua aurkeztu zuen. Honen bitartez, herrian dauden kultura desberdinen elkar ezagutza sustatu nahi du. Kulturaltasuna bilatzen da, baina Jone Miren Hernandez-ek bere elkarrizketan azaltzen zuen legez, kontzeptu teorikoa da. Baina horrek zer esan nahi du? Beste kulturak ulertzea? Beste kulturak gurean txertatzea? Kultura guztien elkarbizitza bilatzea? Gure herrian kultura desberdinetako pertsonak biltzen dira. 50. eta 60. hamarkadan Estatutik Michelin eta Brunet fabriketara etorritako jendea zen; gaur egun, Afrika, Hego Amerika, Europa edo Asia-ko pertsonak dira gure herrira etortzen direnak. Kultura, hizkuntza, ohitura anitzak ditugu eta gutxi batzuk dira beste kulturak ulertu eta elkarlana egiten saiatzen direnak.

Inguruko adineko pertsonen entzunda, 60. hamarkadan auzo euskaldunak eta erdalunak zeuden eta ikastetxeetan ere banaketa zegoen. Orduan, etorkinak eta lasarteoritarrek herrian zeuden arazoei aurre egiteko (estolderia, ikastola...) batu ziren.

Gaur egun bereizpen hori ez da hain argia eta gure herriak ez ditu orduan zituen arazoak. Hala ere, ez dago kultura desberdinetako pertsonen arteko harremanik edo daudenak jarduera puntaletan ematen dira. Ikastetxeetan, berriz, kultura guztietako haurrak batu eta elkarbizitzen dira. Elkarrekin hezi eta haziko dira. Batak besteengatik ikasteko aukera izango dute. Haien lagunak kulturak ezagutuko dituzte. Kultura aniztasuna ez da haientzako kontzeptu arraroa izango. Edo agian ametsetan ari gara?

Hitz eta pitz

Zer iruditzen zaizu Udalak kulturartekotasuna lantzea?



Unai Ibarzabal

Primeran iruditzen zait uste dudalako aurreiritzi gehiegirik bizi garela. Kanpotarrak etortzearen alde txarrari begirratzen diogu askotan, baina nik uste asko irakatsi diezaguketela. Nire emaztea gizarte-langilea da eta gertutik ezagutzen dugu gai hau etxean. Ezezagunari beldurra diogu. Errazena desberdina dena baztertzeko izan ohi da, baina hori ez da bidea.



Andoni Salsamendi

Ongi. Egia da, herrian kultura askotako jendea dago. Haurrekin monitore lanetan aritzen naiz eta ez dut ikusten helduekin dagoen arazo hori, txikiak berdintzat hartzen dituzte euren lagun- txoak. Nik uste dut gainera ulertu behar dugula aspaldian gu beste herrialdeetara joan ginen bezalaxe beraiek ere behar batzuk direla eta etorri direla gurera. Harremanak lantzea ondo dago.



Charlie Ederki

Baina arazo asko dauzkagu kanpotarrok. Ghanakoa naiz eta 10 urte daromatzen hemen. Sekula ez dut ikusi aurrerapausorik Udalaren aldetik. Bestearen kultura ikasteko gerturatu beharra dago. Ideia ona iruditzen zaizkit kafearena bezalako ekimenak. Behar genuen halako zer edo zer, hemengoek beldurra digute, baina ezgutzen gaituztenean konturatzen dira persona onak garela.



Alex Altuna

Printzipioz ongi iruditzen zait. Herrian ditugun kultura guztien arteko zubilanak egiteko balio duten ekimen guztiak ongi-etorriak izan daitezela. Zalantza daukat arrakastarik izango ote duen Udalak, baina izaten badu asko poztuko naiz. Izan ere, askotan ezezagunarengana ez gara hurbiltzen, baina beste kulturak ezagutu eta errespetatzea funtsezkoa dela derizot.



Semblante Andaluz elkarteak Blas de Lezoko egoitzan. Ekitaldi ugari antolatu zituzten bertan ere.

Iruditan

Kultura eta integrazioa

Duela hamaika urte hasi ziren Semblante Andaluz elkarte Aste kultura ospatzen. Gaurtik igandera, elkarte egoitzara edo Golf plazara hurbiltzen diren herritarrek Andaluzia Erkidegoko gastronomia eta kulturaz gozatzeko aukera dute. Esku zabalik hartuko dituzte elkarte kideek. Erromeria, Andaluzia eguna... Semblante Andaluz elkarte eta bere taldeak oso aktibo dira eta edozein elkarte antolatutako ekimenetan parte hartzeko prest agertzen dira. Maiatzean, esate baterako, Jon Maia bertsolariaren hi-zaldia antolatu zuten Ttakun Kultur elkartearekin batera.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte

Geltoki kalea 4

20160 Lasarte-Oria

943 366 858/943 371 448

G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Eredakzioa:

Nerea Ezzagire, Maider

Azumendi, Jon Altuna E.

txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola

publizitatea@ttakun.com

administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa,

Ane Labaka, Mailu Aruti, Asier

Odirozola, Jone M. Hernandez,

Oihana Salazar, Pako Aizpitarte,

Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amador

KULTURA

XI. Aste Kulturala, gaurtik

Semblante Andaluz elkarteak ekitaldi ugari antolatu ditu

Gaur hasi eta igandera arte, Semblante Andaluz elkarteak XI. Aste Kulturala ospatuko du. Talde ugari-aren emanaldiak, txapelketak, bazkari-afariak eta erakusketak izango dira Atsobakar auzoan, bertaratu nahi duen edonoren gozamenerako. Gaur arratsaldean, 20:00etan, emango zaio hasiera, ohore-ardoa eta lunch-arekin.



lazio Aste Kulturalan "Semblante Rociero"-k eskainitako emanaldia.

TXINTXARRI

Semblante Andaluz elkarteak XI. Aste Kulturala ospatuko du gaurtik hasita eta datorren igandera bitartean. Ospakizunaren baitan, era askotako emanaldiak, dantzak, herri bazkariak eta txapelketak antolatu dituzte, bertaratu nahi duen edonoren zozat. Ekitaldi guztiak elkar-tearen egoitzan eta Golf enparantzan izango dira, Atsobakar auzoan.

Gaur emango diote hasiera Aste Kulturalari, 20:00etan, Semblante Andaluz abesbatzaren eskutik. Ohore-ardoa eta lunch-a izango dira autoritate, bazkide eta gonbidatuentzat.

Hurrengo hiru egunetan, berriz, txapelketen txanda izango da. Mus txapelketa jokatu da asteartean, Tute txapelketa asteazkenean eta

Pote txapelketa ostegunean, guztiak 19:30etan.

Ekitaldiz jositako aste-buruari bidea egiteko, herri afaria antolatuko dute ostiralean, 22:00etan. Goizetik gauera izango dira emanaldiak larunbatean, eguerdian "Amigos del Sur" taldearekin hasita. "Azabache" taldeak ekingo dio arratsaldean 16:00etan, eta "Merche Montes", "Zambra", "Sevillana" taldearen dantzaldia eta "Son Kandela"-ren emanaldia izango dira ondoren. Egunari amaiera emateko, herri dantza saioa izango da 21:00etan.

Eta Aste Kulturalari amaiera emateko, iganderako askotariko ekitaldiak prestatu dituzte Semblante Andaluz elkarteok. "Gitanillos del Alba" eta "Duende Flamenco" taldeen emanaldiekin

ekingo diote 11:30etan, eta "Circuito de Trenes de Jardín" erakusketa izango da 12:00etatik aurrera.

Jarraian, gizon eta emakumeen selekzio banak Pote lehiaketa jokatu dute eta haurrentzako jolasak ere antolatuko dira. Indarrak berritze-ko, herri babarrun jana izango da 14:30etan. Azkeneko emanaldi bat izango da 18:00etan, "Semblante Rociero" taldearen eskutik, eta lehiaketen irabazleei sariak banatu ostean, 20:00etan emango diote itxiera Aste Kulturalari.

Gainera, herri argazkien lehiaketa eta "Sabrias reconocerme" erakusketa izango dira aste osoan zehar. Aste-buruan, halaber, barra zerbitzua izango da. Bertaratzeko denak aspertzeko aukera gutxi izango du, beraz.



Txema Vallés omenaldiaren karteelako zatia.

TXEMA VALLÉS

30 urtetako lanari aitortza

Txema Valles DIARIO VASCO-ko kazetariari omenaldia egingo diote herriko kultur eta kirol elkarteek, "herrian antolatzen dutenaren bozgorailu" izana eskertzeko. Euren antolatutako ekimenak "profesionaltasunez, errespetuz eta maitasunez" jorratu izana goraiatzea dute helburu.

Azken 30 urteotan elkarten mesedetan egin duen lan onaren "aitortza publikoa" egiteko, zenbait ekitaldi antolatu dizkiote astean zehar.

Hasteko, Txemak 30 urte hauetan egin dituen artikulu-erakusketa izango da herriko dendetan, gaurtik igandera bitartean.

Ostegunean, berriz, "Buenas noches y buena suerte" filma izango da ikusgai Manuel Lekuona kultur-etxean, kazetaritzaren inguruko, 21:30ean.

Ostiralean izango da, ordea, ekitaldi nagusia. Danborradak ongi etorria egingo dio Txema Vallési Geltoki kalean, 19:30ean, eta jarraian omenaldia egingo diote Manuel Lekuona kultur-etxean, 20:00etan.

UDALA

PSE-EEren bi mozio aztergai, bihar

Lasarte-Oriako Udalbatzarrak ohiko bilkura egingo du bihar, arratsaldeko 18:30etik aurrera. Bertan, PSE-EEK aurkeztutako bi mozio izango dira aztergai. Bata Lasarte-Oriako aparkalekuei buruzkoa da, plaza berriak sortzeko aukera azter dadin, eta bestea ospitalearen banatzen diren farmakoaren koordinaketa errefusatzeko jomuga duena.

Horrez gain, Dinamizazio Sozioekonomikorako batzorde berriaren udal-taldea osatuko duten kideak jakinaraziko dira. Beste bi proposamen ere jorratuko dira: animaliak babesteko eta edukitzeko Udal Araudiaren onarpena eta taxiaren 2014 tarifa urbanoak onesteko.

HEZKUNTZA

Zikloetako tituluak jasotzeko epea

Usurbilgo Lanbide eskolak jakin arazten du, 2012 urtean erdi-maila eta goi mailako ikastaroak amaitu zituzten ikasleek haien tituluak jasotzera hurbildu daitezkeela eskolara.

Tituluak Lanbide eskolako bulegoan jasoko dira, goizetan 9:00etatik 14:00etara.

OINATZ

Lizarrustira irteera

Oinatz taldeak ikasturteari hasiera emango dio urriaren 12an. Oraingoan, ikazkinen mundua ezagutuko du. Hain zuzen ere, Atanuen dagoen Lizarrustiko Parketxera egingo dute bidaia.

Autobusa goizeko 9:00etan aterako da Sagardotegi kaletik Lizarrustira. Izena ematea Ttakun kultur elkartearen egin behar da. Autobusaren prezioa 10 eurokoa da eta bazkarian parte hartu nahi duenak beste 15 euro ordainduko ditu. Antolatzaileek ohartarazi dute izena ematearen arabera bidaiak autobusez edo kotxez egingo dela.

ELEBELTZ TOPAGUNEA

Gitarra eskolak astelehenero

Urriaren 7tik aurrera, astelehenero arratsaldeko 19:00etatik aurrera gitarra eskola martxan jarri du Elebeltz Topaguneak.

"Bertan herriko hainbat musikariren eskutik kitarari soinua ateratzen hasteko edo dakigun hori besteekin elkartrukatzeko aukera izango dugu", adierazi dute.

Lasarte-Oriako gazteak gitarra hartu eta Topagunera hurbiltzera gonbidatzen dituzte arduradunek.

Urgentziako Udalbatzarra

Urgentziako Udalbatzarra udeitu zuen ostiral arratsaldean Udaleko gobernu taldeak Herriraren aurkako operazioa salatzen. PSE-EE ez zen bertan izan, Bilduk halakoetan udal instituzioen "erabilera politikoa" egiten duela uste baitu. PPko Vanesa Velez ere ez zen agertu.

Bi puntu bozkatu zituzten, Udalbatzarraren urgentziatasuna eta EAJk eta Bilduk elkarrekin adostutako mozioa. Lehenengo puntuaren inguruan, EAJ eta LOHP-ak beraien ezinegon azaldu zuten, asteartean osoko bilkura bat dagoela argudiatuta urgentziatasun "erlatiboa" zuela esan zuten, egun dezente pasata zirelako polizia-operazioa egin zenetik.



Bi autobus beteta, 108 pertsona joan ziren Bilboko manifestazio erraldoira.

Hala ere, Bilduren aldeko bozkekin eta EAJ, LOHP eta Marisa Zubiri zinegotzi ez adskribatuaren abstentzioekin urgentziatasuna onartu zitzaion Udalbatzarrari.

Bigarren puntuaren EAJk eta Bilduk elkarrekin adostutako mozioa onartu zen, Herrira-

ren aurkako operazioaren Espainiar Gobernuaren "estrategia politiko-judiziala" gaitzetsi eta atxilotutako askatasuna eskatzen zuten idatzia onartu zuten Bildu eta EAJren aldeko bozkekin. LOHP eta Marisa Zubiri absenteitu egin ziren.



80 urte baino gehiagokoak, Alfonso Rdriguez eta Alicia Garcia izan ziren omenduak. 370 lagun bildu ziren bazkari herrikoian.



Jubilatuaren egoitzan egindako dantzaldian ez zen tango, merenge eta salsarik falta.



Sun Magoaren trikimailu eta magia ikuskizunarekin gaztekoek ere gozatu egin zuten..



Biyak-Bat Zaharren Bitokiaren abesbatza irudian. Argazki guztiak txintxarri.info-n



Don Ramon eta Xabier Andonegik emandako mezan jendetza batu zen.

Ilusioak ez du adinik

Herriko adinekoek merezitako omenaldia jaso dute

Gustatuko litzaieke gazte askori herriko adinekoek duten sasoia izatea. Ez dira geldirik egon omenaldi asteak iraun dituen egunetako bakoitzean. Asteburuan ere izan dute non gozatu eta non erakutsi oraindik ere zeresan asko emateko prest daudela. Larunbat goizeko ibilaldi neurtua, urteroko meza nagusia, kultur-etxeko ekitaldiak eta bazkari herrikoia izan dira asteburuko momentu gorenak. Adinekoek merezitako omenaldia jaso dute.

Eguraldiak hasiera batean Omenaldi Aste-ko azken eguneri mehatxu egingo zela zirudienean, giro txukuna izan dute herriko adinekoek euren ekintzak burutu ahal izateko.

Larunbat goizeko Ibilaldi Neurtuaren bigarren edizioan 44 bikote aurkeztu ziren. Okendon hasi, Oriaraino joan, han buelta hartu eta Sasoeta eta Atsobakar auzoak zeharkatu ostean, berriro ere Okondora itzuli ziren ibiltariak.

Santiago Sanchez eta Purificación Blazquez izan ziren antolakuntzak finkatutako ordu eta 22 minutuko denbora gehien hurbildu zirenak, ez baitzuen irabazi itzulria azkarren egin zuenak.

Lehen hiru bikoteentzat zein azkenarentzat sariak egon ziren, Xanpaina, gaztak, urdaiazpikoak, trofeoak, irratia etab.

Saribanaketan Pablo Barrio alkatea eta Biyak Bat elkarteko Pako Hita eta Jose Mari Bardají aritu ziren eta ibilbide osoan zehar Ostadar SKTko kideak aritu ziren bidegurutze konplikatuetan puntu arriskutsuetan laguntzen.

Larunbat arratsaldean berriz dantzaldia egin zuten Jubilatuen Egoitzan.

Amaia Gonzalez Caballero dantzari ezaguna eta haren senarra Mikel Lasa izan ziren epaimahaiko kide, Pilar Almaraz eta Antonio Perezekin batera.

Herriko adinekoek gerial-

dea mugitzeko gaitasuna galdu ez dutela erakutsi zuten epaimahaiaren aurrean eta bikote garailea Maria Fernandez eta Avelina Rodriguez izan ziren.

Azken eguna, egun handia

Igandea izan zen omenaldi astearen azken eguna eta egitarau oparoari amaiera jartzeko, meza, kultur-etxeko emankizunak eta Michelingo pilotalekuan egindako bazkari erraldoia izan zituzten gozagarri herriko adinekoek.

Urtero bezala, San Pedro parrokia txiki geratu zen igandean adinekoen omenez Xabier Andonegik eta Don Ramonek emandako mezan.

Parrokiatik atera eta zuzenean kultur-etxera joan ziren Biyak Baten abesbatzaz eta Zero Sette akordeoi orkestras gozatzeraz.

Eguna amaitzeko 370 lagunek Michelingo pilotalekuan bazkari erraldoia egin zuten lagunarte giro goxoan, dantzaldiaren aurretik.

Ilusioa ez baita zahartzen, ez baitu adinik.



Ibilaldi neurtuan 44 bikotek hartu zuten parte, aurreko urtean baino gutxiago izan arren, umoretsu ekin zitoten bideari.

Erbesteratutako haurrak gogoan

Udala eta Islada Ezkutatuak Gerra Zibilean herria utzi zutenen memoria lantzen ari dira

Asteartea eta asteazkenean, urriaren 8 eta 9an hain zuzen, Gerra Zibilean eraginez Lasarte-Oriako lurretatik alde egin behar izan zuten haur erbesteratuak gogoraziko dituzten ekimenak antolatu dituzte herrian. Udalak eta Islada ezkutatuak oroimen historikoaren aldeko taldeak elkarlanean abiatutako ekimena da, baina oraindik haur hauen memoria guztiz osatzeko lan asko egin beharra dagoela azpimarratu dute.

Jon ALTUNA EGITEGI

Udalak eta Islada Ezkutatuak Lasarte-Oriako oroimen historikoaren aldeko taldeak elkarlanean aurkeztu dute 1937. urtean Gerra Zibilean eraginez erbesteratuak izan ziren haur lasarteoriatarren memoria berreskuratzeko lana.

Erbesteratuak izan ziren haurren oroimenaren alde egindako lana aurkezteko Pablo Barrio alkatea eta Mailu Arruti Islada Ezkutatuak taldeko kideak prentsaurrekoa eman zuten ostiral arratsaldean kultur-etxeko kafetegian.

laz sortu zen Isalda Ezkutatuak taldea, gurean Gerra Zibilean garaian izandako gertakariak landu, ikertu eta memoriaren zulo ilunetan argi pixka bat jartzeko. Udalaren aldetik ere azken aldian borondate handia izan da

Pablo Barrio alkatea aipatu moduan "herriaren historia eta memoria kolektiboa" lantzeko. Beraz, bi taldeak elkarlanean ari dira orain gertatutakoak berreskuratzeko.

Herriko haurren memoria kolektiboa lantzen ari zirela "harribitxi" batekin topo egin zutela esan du Pablo Barrio alkatea. Herriko hainbat haurrek Gerra Zibilean eraginez Lasarte-Oriako lurrak utzita kanpora bidaiatu behar izan zutela kontatu du.

Angel Belzaren memoriak

Herria utzi eta urrutira joan behar izan zuten gaztetxo horietako bat Angel Belza izan zen. SESBera (Errusia) ebakatu zuten hamar urte besterik ez zituela. Ez zuten egonaldi xamurra izan, familiarengandik urrunduta, bertara joan eta hamar urte pasatxora jaso zuten amaren



Pablo Barrio alkatea eta Mailu Arruti Islada Ezkutatuak taldeko kidea ostiralean kultur-etxean emandako prentsaurrekoan.

lehen gutuna, berri txarrak zekartzala. Aita erail egin zuten eta anairen bat edo beste desagertuta zegoen...

Erusiako lurretan 20 urte egin ostean penintsulara itzuli eta Katalunian bizi da orain. Gaur egun, 87 urte ditu. 2010. urtean bere memoriak idazten hasi zen bilobak hala eskatuta eta hurrengo astean herritarren aurrean bizitakoa kontatzeko aukera izango du.

Islada Ezkutatuak taldeak, Mailu Arruti bozeramailearen bidez, esker ona adierazi nahi izan dio bereziki Udalarari proiektuarekin izan duen prestutasunagatik.

Horretaz gain, erbesteratutako haurren inguruko argazki erakusketa izango dela ere esan dute. Kultur etxeko kafetegian hainbat argazki daude ikusgai jadanik eta zenbait taberna eta komertzioetan ere erakusketaxo bat jartzeko aukera izan dute. "Jalgi, Artizar eta Gure Etxea tabernetan edota Muebles Inchausti eta Anayak komertzioetan hainbat argazki jarri ditugu",

adierazi du Mailu Arrutik Islada Ezkutatuak taldeko kideak.

Bote-lasterrean

Mailu Arrutik azaldu zuenez, hasiera batean ez zuten aurreikusita halako proiekturik aurtengo ikasturterako.

"Entzute-saioak egiten ari ginen, ez garai hartan haurrak izan zirenekin, baizik eta herriko adinduekin hizketan aritu ginen etxeetan zizuten zizutenak biltzen, testigantzak jasotzen... Eta halako batean gure lagun Gabriel Valinek eman zigun Angel Belzaren berri".

Zalantzarik gabe, harekin harremantean jarri eta ostiralean aurkeztutako bideari ekin zioten.

Triptikoa eta programa

Jada etxeetan banatzen ari dira informazio guztia jasotzen duen triptikoa. Bertan islatuta datorrenaren arabera, urriaren 8an Lasarte-Oriako gerrako umeen arteko topaketa bat egiteko asmoa agertzen dute Udalak eta Islada Eskuta-

tuak taldeak, familiakoak, lagunak etab. bilduko dituen topaketa.

Urriaren 9an berriz, "Angel Belza: Memorias de un niño de guerra. 1937-1957" liburua aurkeztuko du Angel Belza berak. Bizitako bizipen gordinak kontatzeko aukera izango du eta ikastetxe batzuetan ere arituko da bere bizitzaz hitz egiten.

Alkatea herritarrei bertan parte-hartzeko deia luzatu die: "Gerrako umeen familiakoentzat elkar ezagutu, gauzak gogoratu eta hari galduak lotzeko aukera da".

Gainera, lasarteoriatar oro gonbidatzen du gaiarekin zerikusirik duen dokumentu, argazki, testu edo dena delakoa Isalda Ezkutatuak taldearekin elkarbanatzera.

Herritar bakoitzak aletxoa jarri ahala lana itxura hartzen joango dela uste dute Arruti eta Barriok. "Testigantza bakoitza, laguntzeko prest dagoen pertsona bakoitza ongietorria izango da", esanez amaitu du Arrutik.



Hiru haur 1937ko martxoaren 23an Habana itsasontzian, gurasoak aberrian utzita.

Krisi garaian, guk ere esfortzua egin nahi izan dugu, gure prezioetan!

MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Prezio berriak fotodepilazioan ETORRI eta GALDETU

Foto depilazioa argi pulsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomo ontzutua Solomoa baratxuritan

Etxeko txorizoa Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra Basurde burua

Baserri pateak

BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

SASKIBALOIA.-

Aurpegia eta ifrentzua Ostadarrentzat

Ostadar SKTko neskek hasi dute denboraldia, kadeteek galdu eta jubenilek irabazi egin zuten

Ostadar SKT-ko saskibaloit taldeak abuztuan hasi ziren lanean. Aurten herriko kirol taldeak nesken bi talde osatu ditu, bata junior mailan eta bestea kadete mailan. Larunbatean jokatu zuten denboraldiko lehen partida. Ligako lehen partidak garrantzitsuak izaten dira emaitzez haratago, taldearen jokoa landu eta akatsak zuzentzeko.

TXINTXARRI

Ostadar SKT-ko nesken saskibaloit taldeek denboraldi berriari hasiera eman diote asteburu honetan.

Kadeteek Internacionalen aurka jasotako porrotarekin (45-55) aldapa gora ekigo diote denboraldiari. Endika Marrahairen neskak gogotsu agertu arren, aurkaria gehiago izan zen eta zorte gehixeago izan zuten intxaurrendoaerrek etxeko taldeak baino.

Jubenilek berriz, Bergara KE egurtu egin zuten larunbat arratsaldean jokatu zuten partida. 53-21 nagusitu ziren Itziar Bermudezen neskak.

Bi talde

Endika Marrahi arduradunak azaldu duenez, aurten bi talde izango dira lehiak. Alde batetik izako kadete taldea dago, "mailaz igotzea lortu zuen, horregatik errendimenduko mailan jolastuko du aurten" eta bestetik junior mailan, "talde berria ateratzea

lortu dugu".

Kadeteen taldean Itziar Bermudez egongo da entrenatzaile lanetan eta zazpi jokalariz osatua egongo da: Ainhoa Morales, Haizea Del Olmo, Itxaso Mercero, Oihane Lizaso, Sara Zulaika, Uxue Rodriguez eta Yaiza Navarro.

"Taldea sendo dago, baina aurten aurkari gogorragoak izango dituztela aurreikusten da, hasiera batean, zazpi jokalarirekin aurre egin beharko dio taldeak denboraldiari, lan zaila izango dute gure neskek", onartu du Marrahi.

Juniorren taldeari dagokionez, Endika Marrahi da entrenatzailea eta bederatzi jokalariz osatuta dago: Ainhoa Faustino, Alba Cruz, Ane Aldazabal, Ane Furundarena, Irati Hernandez, Paula Gonzalez, Paula Uli, Sara Arruti eta Susana Sanz.

"Taldea urte bete egon da geldirik, horren ondorioz lan asko dago egiteko eta gutxi balitz erronka, zailari egingo diote aurre denboraldian,



Lehen laurdenean akats bat edo beste egin arren, Bergara baino koska bat gorago daudela erakutsi zuten jubenilek.

talde oso onak baitaude aerioren bezala".

Honetaz gain, Endikak aurreratu duenez, etxeko partidak kadeteek larunbatetan jokatu dituzte, 16:00etan eta juniorrek, berriz igandean, 11:00tan.

Aurrendenboraldia

Era berean, aurrendenboraldia ederki joan zela aipatu du Marrahi.

Taldeek abuztuaren 26an hasi zituzten entrenamenduak eta bakoitzak lagunarteko partida bat jokatu du Lezoko Allerru-ren aurka.

Kadete taldeak 27 - 62 irabazi zuten. "Partida erakaragarria eta oso bizkorra, hasieratik menderatu zutena,"



Kadeteek ggor saiatu arren, Internacional nagusitu zen 10 puntuko aldeaz.

azaldu du saskibaloit taldeen arduradunak.

Eta Junior taldeak ere garaipena lortu zuten, 48 - 54. "Nahiz eta partidua menderatu, azkeneko zatian

Allerru-k erantzun zuen, eta taldearen esperientzia faltak eta konfiantza maila ahulak izan ziren, markagailua asko laburtzeko arrazoi nagusiak", aipatu du.

PILOTA.-

Axier Arteaga Oñatin garaile

Lehenengo asteko TXINTXARRIN aurreratu genuenez, Axier Arteaga pilotari gazteak Oñatiko Mikel Deunaren txapelketako kadete mailako bikotekako finala jokatu behar zuen irailaren 28an eta Lasarte-Oriako gazteak txapela ekarri zuen herrira.

Axier Arteagak Sarasa nafarrekin egin du bikote txapelketa honetan eta finalan bizkaitar bikotea izan zuten aurrez aurre.

Intzako arduradunak Joxe Felix Solanok adierazi duenez, Axier eta Sarasa hasieratik nagusi izan ziren eta 4 edo 5 tantoko errenta hartu zuten.

Honetaz gain, biek ederki jokatu eta tanto politak egin zituztela ere aipatu du.



Axier Arteaga gaztea izako Gipuzkoako Ligako partida batean.

Honela, Arteagak eta Sarasak 22 eta 11 irabazi eta txapelketa eskuratu zuten.

Hurrengo lehiaketak

Joxe Felix Solanok aurreratu

du g u n e z , A r t e a g a k Gipuzkoako ligako partidak jokatzeaz gain, urriaren 22 eta 23an Egiako txapelketan izango da eta DV lehiaketan ere parte hartuko du.

LABURRAK.-

Hiru herritar dardoko Gipuzkoako selekzioan

Irailaren 29an Hernaniko K2A jatetxean, dardoetako Gipuzkoako Kopa burutu zen.

Bertan 32 dardolari izan ziren lehiak eta horien artean hainbat lasarteitarrek parte hartu zuten. Joseba Unanue oriotarrak bereganatu zuen lehen postua. Herritarrei dagokionez, Jon Merino laugarren izan zen, Jorge Cid zazpigarren eta J.M. Manteola Alcainek zortzigarren amaitu zuten lehiaketa.

Txapelketa honetan sailkapeneko lehen zortziek eskuratzen zuten selekzioan jokatzeo eskubidea, beraz hiru herritarrak Gipuzkoako selekzioarekin jokatu dute azaroan Nafarroakoaren aurka.

Begiristain anaiak bigarren paleta txapelketan

Jon eta Mikel Begiristain anaiak Usurbilgo pala taldean ari dira jokatzen. Lasarteitarrek irailaren 22an, Donostiako Gaska trinketan jokatu zen larruzko paleta txapelketako finalera iritsi zuten eta bigarren postuarekin konformatu behar izan ziren.

Altzatarra, Usurbil eta Real Sociedad taldeek jokatu dute paleta lehiaketa. Hiruren arteko ligaxka jokatu ostean, finalen Real Sociedad taldeko Agirre eta Navarro izan zituzten aurrez aurre. Begiristain anaiak ez zuten aukera askorik izan eta 40-23 galdu zuten.

Agenda

Asteazkena 9, 19:00etan, Manuel Lekuona kultur-etxea



Gerra garaiko haurren bizipenak

Angel Belzak "Angel Belza: Memorias de un niño en la guerra. 1937-1957" liburua aurkeztuko du. Lasarte-Oriara bueltatuko da bere oroitzapenei buruz hitz egiteko. Honetaz gain, asteartean, urriak 8, Lasarte-Oriako gerrako umeen arteko topaketa antolatu da eta urriaren amaiera arte, Manuel Lekuona eta herriko hainbat tabernatan, "1936, Lapurtutako haurtzaroa" argazki erakusketa ikusgai izango da. Udalak eta Islada Ezkutatuak taldeak antolatuta.

gae, jungle, etb. doinuez gozatzeko aukera.

Larunbata 12, 22:30ean

"Costa Bestia"-ren kontzertua eta "Royal Jaleo" DJ-aren Bass Music saioa izango da. Sarrera 15 euro.



Hitzaldia

ZABALETA AUZOKO LOKALEAN

Ostirala 11, 19:30ean

Aizea Morales-Kastresanak "Minbizia: atzo, gaur eta biharko terapiak" hitzaldia eskainiko du. Euskaraz. Zabaleta auzoko Udazken festeko ekitaldia.

Omenaldia

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Osteguna 10, 21:30ean

Ostegun zinea atalaren barruan, "Buenas noches y buena suerte" filma ikusi ahaliko da. Sarrera, leihatilan 4,65euro; internet bidez, 4,24 euro. Gaztelaniaz. Okendo Zinema taldeak antolatuta Txema Valles-en omenaldiaren barruan.

Ostirala 11, 20:00etan

"Orain zure txanda da Txema Valles" omenaldia. Sarrera doan.

Igandea 13, 19:30ean

Helduen zinea atalaren barruan, "Buenas noches y buena suerte" filma ikusi ahaliko da. Sarrera, leihatilan 5,85euro; internet bidez, 5,30 euro. Gaztelaniaz. Okendo Zinema taldeak antolatuta Txema Valles-en omenaldiaren barruan.

Lasarte-Oria

Aste kulturala

SEMBLANTE ANDALUZ ELKARTEA

Astelehena 7-Igandea 13

"Sabrias reconocerme" argazkien lehiaketa eta erakusketa ikusgai izango da.

Astelehena 7, 20:00etatik aurrera

Aste kulturalaren irekiera, ohore ardoa, luntxa eta musika Semblante Andaluz abesbatzaren eskutik.

Asteartea 8, 19:30ean

Mus Txapelketa izango da.

Asteazkena 9, 19:30ean

Tute Txapelketa izango da.

Osteguna 10, 19:30ean

Pote Txapelketa izango da.

Ostirala 11, 22:00etan

Herri afaria izango da.

Adinekoen omenaldia

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Astelehena 7, 19:00etan

ONCE-ko antzerki taldeak "Cloche-merle" lana eskainiko du.

AMA BRIGITARREN KAPERAN

Asteartea 08, 11:00etan

Biyak Bat elkarteko urteurrenaren meza.

BIYAK BAT ELKARTEA

Asteartea 8, 17:00etatik aurrera

Urrezko ezteiak ospatzen dituzten bikoteei origarri banaketa. Ostean, merienda eta dantzaldia.

Musika

DONEGAL TABERNA

Osteguna 10, 23:00etan

"Howdy" taldearen folk, country eta blues doinuez gozatzeko aukera.

ZULO ARETOA

Ostirala 11, 22:30ean

"A rasta-k" eta "Kenke jajah"-ren reg-

Herritarren txokoa

Erketz-eko taldeen entseguak

Erketz EDT eta Erketz-eko Lagunak taldeek urriaren hasiko dituzte entseguak.

Erketz-eko Lagunak taldeak asteartean egingo ditu saioak eta Erketz EDT-ko kideek, berriz ostegunetan. Entseguak Zumaburu ikastetxekeo gimnasioan izango dira, 20:00etatik aurrera ohi bezala.

Era berean, 5 urtetik aurrerako haur eta gaztetxoek ere Erketz Txikin dantza egiteko aukera izango dutela gogoratu dute.

Azalpen edo informazio gehiago eskuratu nahi duten herritarrek 635 746 028 telefono zenbakia jarri du eskura dantza taldeak.

Alboka Abesbatza eta Alboka Txiki-ren entseguak

Alboka abesbatzak jakin arazten du Alboka Txiki abesbatzak urriaren 1ean, asteartea, arratsaldeko 18:00etan, Arantzazuko Ama elizazpiko aretoan hasiko dituztela entseguak.

Herriko abesbatzak 5 eta 16 urte arteko haur eta gaztetxoak animatu nahi ditu entseguetara hurbildu eta probatzera. Ez da beharrezkoa musika

ezagutzarik izatea.

Bestalde, helduen abesbatzak astelehena eta ostegunetan 20:00etatik 21:30etara ditu entseguak. Anima zaitzete!

Uztaro Kooperatiba

Uztaro Kooperatibak janariaren kontsumo arduratsu, bertakoa eta ekologikoa sustatu nahi du.

Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratza, Beizaman kokatua dago. Astelehenero, Danok Kide elkarteko lokalean banatzen dira barazki eta frutak, garaian garaikoak eta ekologikoak.

Proiektua gustuko dutenentzat atek zabalik dituztela jakitera eman dute Uztarokoek. Informazio gehiago eskuratzeko uztarolasarteoria@hotmail.com helbidean.

Sarean

Euskarazko ipuin interaktiboak

Gaur egun edozertarako erabili daiteke mugikorra, beti ere, smartphone bat baldin bada. Aplikazio ugari daude honetarako heldu, zein haurrei zuzenduak.

Haurren kasuan, milaka dira haiei zuzendutako dauden jokoak, baina badira bestelako aplikazioak ere. Oraingoan ipuin interaktiboak dakartzagu atal honetara.

Hauen bitartez

haurrek irakurtzeaz eta gauzak ikateaz gain, musika entzun, pantaila ukituaz pertsonaiak mugitu edo hauekin hainbat jokoetan jolastu ahal dira.

Ipuin interaktibo asko aurkitu daitezke, baina gutxi dira euskaraz daudenak eta aplikazioei dagokienez, gauza bera geratzen da.

Ipuin interaktiboak irakurtzeko euskaraz egin den lehen aplikazio "Ipuintxo" du izena eta mugikor edo tablet-ek erabil dezakete.

Ipuin interaktiboek dagokionez, enpresa desberdinek sortutako "Nairo-bitarra. Munduko Ipuinak", "Marigorringoren abenturak", "X-Zatiketak Bidertuz" edo "Basajendea" ipuinak daude eskura.

Hauetan besteak beste, munduari bira eman, mitologiari buruz ikasi edo marigorringoren mundua ezagutu ahaliko dute etxeko txikiak era erakargarri eta erraz batean.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Miren Agur Meabe Idazlea

"Gordintasuna hurbilekoa egiten zaie emakumeei"

Irakurle txokoan Miren Agur Meaberen "Kristalezko begi bat" liburua aztertuko dute

Urriaren 15ean, Irakurlee-txokoaren lehen saioa izango da Villa Mirentxun, 18:30ean. Honetan Miren Agur Meaberen "Kristalezko begi bat" liburua izango da aztergai. Gainera, idazlea bera saioan izango da bere idazlanaren nondik norakoak azaltzeko.

TXINTXARRI

Miren Agur Meabe idazlearen "Kristalezko begi bat" eleberriak emango dio hasiera Lasarte-Oriako Irakurlee-txokoari. Horregatik, idazle lekeitiarrarekin liburuari eta Lasarte-Oriarekin duen lotura bereziari buruz hitz egin dugu.

Sortu berri da Irakurlee-txoko Lasarte-Orian, lehenengo saioan zu izango zara gonbidatua. Zer suposatzen du idazlearentzat halako taldeetan parte hartzeak?

A zer luxua niretzat! Ea hasiera ona ematen diogun denon artean. Bide oparoa opa diot taldeari.

Aberasgarriak izaten dira halako topaldiak: batetik, liburuaren inguruko hainbat azalpen osagarri baina garrantzitsu emateko aukera ematen digute; bestetik, praktikan ikusten digu irakurleak zertan datozen bat eta zertan ez, zer estimatu duten eta zer ez zaien iritsi... Saio guztietatik ateratzen dut zeri egin kasu, eta

batez ere, langintza honen zentzua berresteko balio izaten didate.

"Kristalezko begi bat" eleberria landuko duzue. Eleberri intimoa, lehenengo pertsonan idatzia eta zurea zein edozein emakumeren istorioa izan daitekeena...

Izan ere, protagonistak bere arima eta gorputza deskribatzen ditu, xede batekin: "Nor naiz ni?" galderari berriz erantzutea "adin arriskutsua" deritzon garaian, hau da, menopausiaren sasoiaren. Transizio garaiko asaldura fisiko eta emozional horiek guztiak naizen emakumearen ikuspuntutik azalduta daude eta, gordintasuna gorabehera, hurbilekoa egiten zaie emakumeei.

Gainera, liburuaren formatua hibridoa, denetarik bil dezakeena: gogoeta solteak, oroitzapenak, uneko bizipeanak, gutunak, gertaerak, ameskeriak, poemak... Norberaren intimitatea da, aldi berean, lehengaia eta produktua, baina intimitate horrek badu unibertsaltasun bat.

Horrelakoetan errealitatea eta fikzioaren arteko muga zein den galdetuko dizute irakurleek ezta?

Ez pentsa. Irakurleek onartzen dute badagoela bana-lerroa errealitatearen eta fikzioaren artean, oso lausoa izan arren, eta testua sinesgarria egiten bazaie, ez die axola zer den egia santua eta zer ez.

Liburu hau ez da autobiografia bat, autobiografiaren premisa errealitatearekiko leialtasuna delako; autofikzio edo autoimitazioarena, ordea, errealitatearen mimesia: abiapuntua esperientzia errealeak izan arren, zatiak asmatu daitezke, gaiaren zerbitzura. Adibidez, gogoeta bat girtzeko, edo elkarrizketak kontestualizatzeko, beharrezkoa da nolabaiteko dekoratua jartzea. Xehetasun batzuk nabarmendu egiten dira, edota beste batzuk isildu, interes literarioak eraginda.

Lanak arrakasta izan du, kritika oso onak jaso ditu... espero al zenuen?

Ezin gehiago eskatu. Uste dut, partez irakurleak interpelazioa sentitu duela, narratzailea "zu" bati zuzentzen zaiolako, konplizitate bila, eta galderak egiten dizkiolako, zalantzak aurkezten, baita justifikazioak ematen ere, beste aldean dagoen solaskide isil horri. Bihotzez eskertzen diet benebenetan lan honi era batera edo bestera lagundu dioten guztiei.

Orain gazteleratzen ari zara. Lan erraza izaten ari al da?

Uste baino zailagoa, egia esan. Autoitzulpenaren hautua egiten dut normalean, horrek askatasuna ematen didalako testua nahieran doitzeko, baina kasu honetan "nire ahotza" —euskarazko bertsioko tonuak— harrapatu ezinik nabil. Ekin eta ekin egin beharko dut doinua guztiz afinatu arte.

Lasarte-Orian 1991. urtean udalaren sari irabazi zenuen "Oi, hondarrezko emakaitz!" poema libururarekin. Zure bigarren bisita izango da urriaren 15ean egingo duzuna?

Gogoan daukat saria jasotzera joan nintzen eguna, larunbat eguzkitsua bat. Urduritasuna eta poza menderatu nahian egin nuen bidea autoan. Orduan,

borrokan nenbilen idazlea izateko, izan guran nenbilen. Anderefoia nintzen Bilboko ikastola batean, 29 urte nituen, eta sari garrantzitsua gertatu zen niretzat, hilabete askotako lanaren eta disziplinaren fruitutzat hartu nuelako. Oker ez banago, Felipe Juaristi zen epaimahaikideetako bat. Gainera, dotazio ekonomikoa ere ez zen makala, orduko 600 euroren parekoa. Bazuen kategoria sariketa hark, nahiz eta zoritxarrez, lanen argitalpena kaskarra izan, gehienetan ohi zen moduan.

Urte batzuk geroago lan hori berreskuratu, eta aldaketa batzuk eginda, "Idatz & Mintz" aldizkariaren separata moduan argitaratu zen, eta ondoren, Azalaren kodea poema-liburuan txertatu nituen poema esanguratsuenak. Liburu hura izan zen ondotik etorri diren besteen sorkina. Nahi eta nahi ez, Lasarte-Oriari zor nion beste bisita bat, eta hara non ia hogeit urte pasatxo berriz itzuli naizen, oraingoan idazle. Bizitzaren keinu hauek asko eskertzen ditut.

Zer esango zenieke irakurleei solasaldian parte hartzearen...

Proba egiteko... Arrisku barik, ez dago emaitzarik.



"Kristalezko begi bat" liburuaren azala eta Miren Agur Meabe idazlea.

